




Ehiza eta Arrantza

Hiztegia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA





Ehiza eta Arrantza

HIZTEGIA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017





Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren
Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

HITZAURREA

Beste edozein hizkuntza bezalaxe, euskara ere berritzen eta modernizatzen doa egunetik egunera, bizirik dagoen seinale. Bide horretan ezinbestekoa da euskararen aberastasun lexikoa elikatzea, zaintzea eta sustatzea, bai hizkuntza bera normalizatzeko, bai erabiltzaileen premietara egokitzeko. Hain zuzen ere, helburu horiek bete nahian ikusi du argia eskuartean duzun hiztegi honek, orrialde hauetan jorratzen den eremuko erabiltzaile eta hiztunek lanabes erabilgarria izan dezaten beren egunerokoan.

Hiztegi honetan aurkituko duzun terminologia Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak gomendatutakoa da. Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, ponderazio-markak finkatuta termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea.

Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, hiztegi hau ere EUKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan www.euskara.euskadi.eus/euskalterm dago integratuta.

Banku hau etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, Eusko

Argitaraldia: I.a, 2017ko xxxxxx

Ale-kopurua: 1.500 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
 Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
 Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskara.euskadi.eus/euskalterm

Azala: Concetta Probanza

Inprimaketa: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN: XXXXXXXXXXXXXXXX

Lege gordailua: XXXXXXXXX



Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina izan dadin. EUSKALTERM metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planei jarraituz.

Hiztegi hau erabiltzaileen oinarrizko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, hemen jorratzen den terminologiaren erabilera normalizatzeko eta gure hizkuntzaren eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izan dadin. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok gero eta hizkuntza aberatsagoa izan dezagun.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 29a

MIREN DOBARAN URRUTIA

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) eguneratzeko eta elikatzeko entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuen barruan. Kontratuok HPSk eta IVAPEk finantzatu dituzte, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenen bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak¹ finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenetasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia.**

¹ 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa



Hiztegia erabilitako ponderazio-markak:

- (4) Termino normalizatua / gomendatua
- (3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegia erabilitako laburtzapenak:

eu euskara
 es español
 fr français
 en english

Sin. sinonimoa
 Ik. ikus

NORMALIZAZIOA

BATZORDE TEKNIKOA

Aritz Abaroa (Bermeoko Ehiza, Arrantza eta Tiro Elkarte. Filologoa)
Iñigo Mendiola (GFAko Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa)
Joxean Zapirain (UZEI)
 Koordinatzailea: **Jone Agirregoikoa** (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

TERMINOLOGIA BATZORDEA

Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria
Eneko Oregi Goñi, IVApeko zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea
Jorge Giménez Bech, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria
Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria
Maite Imaz Leunda, IVApeko ordezkaria
Andoni Sagarna Izagirre, Euskaltzaindiaren ordezkaria
Iker Etxebeste Zubizarreta, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEIko) ordezkaria
Xabier Alberdi Larizgoitia, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria
Ibon Olaziregi Salaberria, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria
Mertxe Olaizola Maiz, aditua
Joseba Erkizia Itoitz, aditua
Asier Larrinaga Larrazabal, aditua
Miel Loinaz Beristain, aditua
Alberto Atxabal Rada, aditua
Alfontso Mujika Etxeberria, aditua



UZEIren LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

Gipuzkoako Ehiza Federazioa
Jaione Aramendi. HAEE/IVAP

EREMU - ZUHAITZA

- 1 Kontzeptu orokorrak
- 2 Espezieak
- 3 Ehiza- eta arrantza-eremuak
- 4 Rolak
- 5 Metodoak
- 6 Ekipamendua
- 7 Araudia



AURKIBIDEA

Bokabularioa sailka	13
1. KONTZEPTU OROKORRAK	14
2. ESPEZIEAK	18
3. EHIZA- ETA ARRANTZA-EREMUAK	22
4. ROLAK	25
5. METODOAK	26
6. EKIPAMENDUA	34
7. ARAUDIA	46
Euskarazko aurkibidea	51
Gaztelaniazko aurkibidea	59
Frantsesezko aurkibidea	67
Ingelesezko aurkibidea	75
Erreferentzia bibliografikoak	83

BOKABULARIOA SAILKA

I. KONTZEPTU OROKORRAK

1

amuari heldu (4)

Amuan jarritako beita arrain batek irentsi.

- es** picar el anzuelo
fr mordre à l'hameçon
en bite the hook

2

arrantza (4)

Arrainak edo uretan bizi diren beste animalia batzuk harrapatzeko jarduera edo lanbidea.

- es** pesca
fr pêche
en fishery; fishing

3

arrantza-debekualdi (4)

es veda de pesca
fr période de fermeture de la pêche
en closed season for fishing

arrantzan egin

Ik. arrantzatu

4

arrantzatu (4)

Sin. arrantzan egin (4)

Arrantzan egin, arrainak harrapatu.

- es** pescar
fr pêcher
en fish

5

debekualdi (4)

es veda
fr période de fermeture
en closed season

6

ehiza (4)

Animalia basatiak edo naturan aske utzitako abeltzaintzako animaliak harrapatzeko jarduera.

- es** caza
fr chasse
en hunting

ehiza

Ik. ehizaki

7

ehiza-debekualdi (4)

es veda de caza
fr période de fermeture de la chasse
en closed season for hunting

8

ehiza-elkarte (4)

Sin. ehiztari-elkarte (4)

Eremu zibileko erakunde pribatua, bazkide ehiztariz osatua eta, besteak beste, bazkide horiei ehiza-jarduera guztiak estaltzen dizkien erantzukizun zibileko aseguru bat eskaintzen diena.

- es** sociedad de caza; sociedad de cazadores; asociación de cazadores
fr association de chasseurs
en hunters association

9

ehiza-eraso (4)

Sin. jaurtialdi (4)

Ehizan aritzean, ehizakia harrapatzeko unea.

- es** lance
fr attaque

10

ehiza-federazio (4)

es federación de caza
fr fédération des chasseurs
en hunting federation

11

ehiza-ibilbide (4)

Tiroketa-modalitatea, ehizakiek ihesi doazenean egiten duten ibilbidea simulatzen duen itu artifizialari tiro egitean datzana.

- es** recorrido de caza
fr parcours de chasse
en sporting

12

ehiza-trofeo (4)

Ehiza-oroigarria, ehiza larriko animalien adarrekin, buruarekin edo basurdeen letaginekin egindakoa.

- es** trofeo de caza
fr trophée de chasse
en trophy

13

ehizaki (4)

Sin. ehiza (4)

Ehizatutako animalia.

- es** pieza de caza; caza
fr gibier
en game

14

ehizaldi (4)

Animaliak harrapatzeko txangoa, bereziki ehiztari talde batek elkarrekin egiten dutena.

- es** cacería; partida de caza
fr partie de chasse
en hunting party

15

ehizatu (4)

Animaliak, harrapatzeko edo hiltzeko, esetsi.

- es** cazar
fr chasse
en hunt

ehiztari-elkarte

Ik. ehiza-elkarte

16

habia (4)

Hainbat animaliak beren umeak hazteko moldatzen duten babesgunea: erruleek bertan erruten dituzte arrautzak, eta ugaztunak bertan erditzen dira.

- es** nido
fr nid
en nest

17

harrapakari (4)

Animalia basatia, beste espezie batzuetako animaliak, gehienetan bera baino txikiagoak, harrapatzen, hiltzen eta jaten dituena.

- es** predador; depredador
fr prédateur
en predator

18

harrapaketa (4)

Arrantzan edo ehizan harrapatutako animalia-kopurua.

- es** captura
fr capture; prise
en catch

19

harrapakin (4)

es presa; pieza
fr proie
en prey

itu

Ik. jomuga



20

jaso (4)

Ehizatutako animalia bat ehiztariak eskuratu.

es cobrar
fr rapporter
en bag

jaurtialdi

Ik. ehiza-eraso

21

jomuga (4)

Sin. itu (4)

es blanco
fr cible
en target

22

lakioz harrapatu (4)

Ehiza xehea lakioz ehizatu.

es lacear
fr attraper au lasso
en lasso

23

lehen odol (4)

Sin. lehen zauri (4)

Ehiztari batek, beste ehiztarietara aurrea hartuz, animalia bat lehen aldiz zauritzea.

es primera sangre
fr premier sang
en first blood

lehen zauri

Ik. lehen odol

24

mestizo (4)

Arraza desberdineko aitarengandik eta amarengandik jaiotako animalia.

es mestizo
fr métis
en cross-bred

25

paseko ehiza (4)

es caza al paso
fr chasse à la passée

26

sarealdi (4)

Sin. sarekada (4)

es redada
fr coup de filet
en casting of nets

sarekada

Ik. sarealdi

27

taxidermia (4)

es taxidermia
fr taxidermie
en taxidermy

28

tiro (4)

Su-arma, arku edo balezta baten kargajaurtitzea.

es disparo
fr coup de feu
en shoot

29

tiro egin (4)

Su-arma, arku edo balezta bat erabiliz jaurtigaia jaurtiaz.

es disparar
fr tirer; faire feu
en fire; shoot

30

untxi-zulo (4)

es vivar
fr garenne
en warren

31

uso-pase (4)

es pase de palomas
fr passage de pigeons
en passage of pigeons

32

zelatan jarri (4)

es apostarse
fr s'aposter
en take one's post

33

zinegetika (4)

Ehizaren artea.

es cinegética
fr cynégétique
en cynegetics

2. ESPEZIEAK

34

abere basatu (4)**es** animal doméstico asilvestrado**fr** animal domestique devenu sauvage; animal marron**en** feral animal

35

animalia basati (4)**es** animal salvaje**fr** bête sauvage**en** wild animal

36

arrain-sarda (4)

Batera igeri egiten duten eta antzeko baldintza biologikoa, portaera eta adina dituzten arrainen multzoa.

es banco de peces**fr** banc de pêche**en** fisheries bank

37

arrantza-espezie bateko ale (4)**es** ejemplar de especie piscícola**fr** spécimen d'espèce piscicole**en** example of fish species; example of fishing species**babespeko espezie**

Ik. espezie babestu

basafauna

Ik. fauna basati

birpopulaketa

Ik. birpopulatze

38

birpopulatze (4)

Sin. birpopulaketa (4)

es repoblación**fr** repeuplement**en** restocking

39

ehiza-espezie (4)

Sin. ehiza-intereseko espezie (4)

es especie cinegética; especie de interés cinegético**fr** espèce cynégétique**en** cynegetic species

40

ehiza-espezie bateko ale (4)**es** ejemplar de especie cinegética**fr** spécimen d'espèce cynégétique**en** example of cynegetic species

41

ehiza-hegazti (4)

Sin. falkoneria-hegazti (4)

Ehizarako duen trebezia baliatuz, beste hegaztiak harrapatzeko trebatu den hegazti harraparia.

es ave de cetrería**fr** oiseau de chasse**en** hunting bird**ehiza-intereseko espezie**

Ik. ehiza-espezie

42

eraztuntze (4)

Sin. marka jartze (4)

Animalia basatiak, eta bereziki hegaztiak, markatzeko, identifikazio-kode bat duen pieza bat animalari lotzea, zangoetako batean edo beste gorputz-atal batean.

es anillamiento; marcado de pieza de caza**fr** baguage**en** ringing**espezie akuikola**

Ik. espezie urtar

43

espezie aloktono (4)

Sin. espezie exotiko (4)

Eremu jakin batean bizi den espeziea, bertakoa izan gabe.

es especie alóctona; especie exótica**fr** espèce exotique**en** exotic species

44

espezie autoktono (4)

Eremu jakin batean bizi den espeziea, bertakoa izanda.

es especie autóctona**fr** espèce indigène; espèce autochtone**en** autochthonous species; native species

45

espezie babestu (4)

Sin. babespeko espezie (4)

es especie protegida**fr** espèce protégée**en** protected species

46

espezie bakan (4)

Populazio txikiko espeziea, arrisku-egoeran dagoena, nahiz eta oraindik galzorian ez egon edo espezie ahula ez izan.

es especie rara**fr** espèce rare**en** rare species

47

espezie endemiko (4)

Eremu txiki batean baino bizi ez den espeziea.

es especie endémica**fr** espèce endémique; endémique**en** endemic species**espezie exotiko**

Ik. espezie aloktono

48

espezie gregario (4)

Sin. espezie taldekoi (3)

Dentsitate handiko taldetan bizi daitekeen espeziea.

es especie gregaria**fr** essence sociale**en** gregarious species

49

espezie kaltebera (4)

Bizi duen egoeraren eragileei aurre egiten ez bazaie, galzorian dagoen espezie edo habitataren eraldaketaren mendeko espezie sentibera bihurtzeko arriskua duena.

es especie vulnerable**fr** espèce sensible; espèce vulnérable**en** sensitive species

50

espezie mehatxatu (4)

Galtzeko arriskuan dagoelako, babes berezia behar duen landare- edo animalia-espezia.

es especie amenazada**fr** espèce menacée**en** threatened species

51

espezie migratzaile (4)

Urte-sasoiaaren aldaketei jarraituz eta bizi-baldintza egokiagoen bila, aldiro-aldiro, bi habitatan arteko joan-etorria egiten duen espeziea.

es especie migratoria**fr** espèce migratrice**en** migratory species**espezie taldekoi**

Ik. espezie gregario



52

espezie urtar (4)

Sin. espezie akuikola (4)

Uretan bizi dena.

es espezie acuícola; especie acuática**fr** espèce aquatique**en** aquatic species

53

espezieak askatze (4)**es** suelta de especies**fr** lâcher d'espèces**en** stocking

54

espezieak berriro sartzte (4)**es** reintroducción de especies**fr** réintroduction des espèces**en** species reintroduction;
reintroduction of species**falkoneria-hegazti**

Ik. ehiza-hegazti

55

fauna basati (4)

Sin. basafauna (4)

es fauna silvestre**fr** faune sauvage**en** wildlife

56

fauna basatu (4)**es** fauna asilvestrada**fr** faune devenue sauvage**en** feral fauna

57

galzoriko espezie (4)Leku batean edo mundu osoan
desagertzeko arriskuan dagoen espeziea.**es** especie en vías de extinción;
especie en peligro de extinción**fr** espèce menacée de disparition**en** endangered species

58

habitataren eraldaketaren**mendeko espezie (4)**Oso baldintza bereziko habitat batean
bizi behar duen espeziea. Baldintza
horiek aldatuz gero, kalte larriak jasan
ditzake edo beste habitat batera joan
beharra izan dezake.**es** especie sensible a la alteración del
hábitat; especie sensible a su
hábitat**fr** espèce sensible à l'altération de
son habitat**en** species vulnerable to specific
changes in their habitat**harrapari**

Ik. hegazti harrapari

hegazti akuikola

Ik. hegazti urtar

59

hegazti harrapari (4)

Sin. harrapari (4)

Hegazti haragijalea, berak ehizaturiko
harrapakinekin elikatzen dena,
gehienetan falkoniformeen edo
estrigiformeen ordenakoa.**es** ave de presa; ave rapaz**fr** rapace**en** bird of prey; raptor

60

hegazti urtar (4)

Sin. hegazti akuikola (4)

Uretan edo ur-ertzean bizi den
hegaztia.**es** ave acuática; ave acuícola**fr** oiseau aquatique**en** aquatic bird; waterfowl

61

iledunen ehiza (4)Ilea daukaten animalia-espezieen ehiza;
ehiza larria nahiz xehea izan daiteke.Halakotzat hartzen da untxien, erbien
eta basurdeen ehiza.**es** caza de pelo**fr** chasse au gibier à poil**en** hunting of game animals

62

interes bereziko espezie (4)Balio ekologiko, zientifiko edo kultural
handikoa izateagatik edo oso ezaugarri
bereziak izateagatik babes eta arreta
berezia behar dituen espeziea.**es** especie de interés especial**fr** espèce d'intérêt spécial**en** species of special conservation
interest

63

itxian hazitako ehiza (4)**es** caza criada en cautividad**fr** animal-gibier issu d'un élevage**en** game reared in captivity

64

lumadunen ehiza (4)Ehiza xehearen atala, hegaztien ehiza
barne hartzen duena.**es** caza de pluma**fr** chasse au gibier à plumes**en** hunting of game birds**marka jartzte**

Ik. eraztuntze

65

paseko hegazti (4)Urte-sasoia aldatu dela-eta, beste
lurralde batera doan hegazti
migratzailea.**es** ave de paso**fr** oiseau de passage**en** passage bird; bird of passage

66

salmonido (4)**es** salmónido**fr** salmonidé**en** salmonid

67

uretako landaretza (4)**es** vegetación acuática**fr** végétation aquatique**en** aquatic vegetation

68

ziprinido (4)**es** ciprínido**fr** cyprinidé**en** cyprinid

3. EHIZA- ETA ARRANTZA-EREMUAK

69

amuarraibai (4)

Amuarrainek ohikoa duten ibaia.

es río truchero**fr** rivière à truites**en** trout river

70

aprobetxamendu erkideko**ehiza-lur (4)****es** terreno cinegético de aprovechamiento común

71

araubide bereziko eremu (4)**es** zona de régimen especial

72

arrain-eskailera (4)

Presa batean edo haren ondoan arraintzat eraikitako pasabidea, maila desberdinetan jarritako zenbait aska dituen.

es escala de peces**fr** passe à poissons**en** fisher ladder

73

arrain-leku (4)

Itsaso, ibai eta antzekoetan, arrain ugari dagoen lekua.

es pesquera**fr** pêcherie**en** fishery ground

74

arrantza-barruti (4)

Fauna urtarra babesteko, aginte publikoek arautzen duten arrantza-eremua. Arrantzaleek baimena behar dute urte-sasoi jakinetan eremu horretan arrantzan aritzeko.

es coto de pesca**fr** réserve de pêche**en** fishing preserve

75

arrantza-debekugune (4)**es** terreno vedado de pesca; vedado de pesca

76

arrantza-tarte (4)**es** tramo de pesca**fr** tronçon de pêche**en** fishing stretch

77

babes bereziko eremu (4)**es** zona de especial protección**fr** zone de protection spéciale**en** special protection area

78

Batasuneko garrantzizko**leku (4)****es** lugar de importancia comunitaria**fr** site d'importance

communautaire

en site of Community importance

79

ehiza industrialeko eremu (4)

Foru-aldundiek baimendutako irabazi-asmoko ehiza-eremua: aldian-aldian ehiza-haztegietan hazitako animaliak aske uzten dira bertan, ehiztariek harrapa ditzaten.

es zona de caza industrial

80

ehiza larriko barruti (4)

Ehiza larrian jarduteko baimena duen ehiza-barrutia.

es coto de caza mayor**fr** réserve à gros gibier**en** big game preserve; preserve for big-game hunting

81

ehiza xeheko barruti (4)

Ehiza xehean jarduteko baimena duen ehiza-barrutia.

es coto de caza menor**fr** réserve à petit gibier**en** small game preserve; preserve for small-game hunting

82

ehiza-araubide bereziko lur (4)**es** terreno acogido al régimen cinegético especial; terreno de régimen cinegético especial; terreno de aprovechamiento cinegético especial

83

ehiza-barruti (4)

Ehizan aritzeko lursail pribatua; fauna babesteko, aginte publikoek arautzen dute. Jabeak eta baimendutako pertsonak soilik ibil daitezke ehizan ehiza-barruti batean.

es coto de caza**fr** réserve de chasse; chasse gardée**en** game preserve**ehiza-barruti sozial**

Ik. orentzako ehiza-barruti

84

ehiza-debekugune (4)

Ehizarako debekatutako eremua, betiere ehiza-lur, araubide bereziko eremu edo fauna-babesleku gisa deklaratu ez bada, edo, legez, aurrez ikusitako beste zehaztapenen bidez ehizarako debekua ezarri bazaio.

es terreno vedado de caza; vedado de caza

85

ehiza-jarduerako eremu (4)**es** zona de actividad cinegética**ehiza-lur**

Ik. ehizaren aprobetxamendurako lur

86

ehiza-txakurrak trebatzeko**eremu (4)****es** zona de adiestramiento de perros**en** dog training area

87

ehizarako ez den lur (4)**es** terreno no cinegético**fr** terrain non cynégétique**en** non cynegetic ground

88

ehizaren aprobetxamendurako**lur (4)**

Sin. ehiza-lur (4)

Ehizan erabiltzeko izendatuta dagoen lursaila. 2/2011 Ehizaren Legeak arautzen duenez, ehiza-lurrak dira aprobetxamendu erkideko lurak, zainpeko ehiza-eremuak, ehiza-barrutiak eta ehiza-txakurrak trebatzeko eremuak eta ehiza-jarduerako eremuak.

es terreno de aprovechamiento cinegético; terreno cinegético; terreno de caza**fr** territoire de chasse**en** area of hunting



89

erreserba-eremu (4)

Ehiza-jarduerako eremu batean, fauna babesteko sortutako eremua.

- es** reserva de caza; zona de reserva
fr réserve de gibier
en game preserve

90

fauna-babesleku (4)

Ehizarako ez den lursaila, bertan dauden espezieen kontserbazioa bermatzeko sortua, eta aginte publikoek kudeatzen, kontrolatzen eta zaintzen dutena.

- es** zona de refugio; refugio de caza; refugio de fauna
fr réserve de chasse; réserve cynégétique
en game park; game sanctuary

91

habitat (4)

Espezie baten berezko bizilekua, ingurumen-baldintza bereziak dituena.

- es** hábitat
fr habitat
en habitat

92

izokin-ibai (4)

Izokinek ohikoa duten ibaia.

- es** río salmonero
fr rivière à saumons
en salmon river

kontrolpeko ehiza-eremu

Ik. zainpeko ehiza-eremu

93

kontserbazio bereziko eremu (4)

- es** zona especial de conservación
fr zone spéciale de conservation
en special area of conservation

94

lursail publiko (4)

Sin. titulartasun publikoko lursail (4)

- es** terreno de titularidad pública
fr terres publiques
en public lands

95

naturagune babestu (4)

Babes juridikodun lur- edo itsas eremua, bertako dibertsitate biologikoa eta baliabide naturalak gizakien eraginagatik murriztu eta/edo agor ez daitezten legez arautua.

- es** espacio natural protegido
fr zone protégée
en protected area

96

ororentzako ehiza-barruti (4)

Sin. ehiza-barruti sozial (4)

Irabazi-asmorik gabe kudeatzen den ehiza-barrutia, ehizatze baldintzak bete arren, beste mota batzuetako ehiza-lurrak erabil ezin ditzaketen herritarrei ehizan aritzeko aukera erraztea helburu duena.

- es** coto social de caza

titulartasun publikoko lursail

Ik. lursail publiko

97

usadiozko pase-lerro (4)

- es** línea de pase tradicional
fr ligne de passage traditionnelle

98

zainpeko ehiza-eremu (4)

Sin. kontrolpeko ehiza-eremu (4)

- es** zona de caza controlada; terreno de caza controlada
fr zone de chasse contrôlée
en controlled hunting zone

4. ROLAK

99

abatari (4)

Uso-pasean, trapa batean dagoen zelataria; usoak hurbiltzen ari direla ohartarazten die gainerako ehiztariei.

- es** centinela de palomas

100

arpoilari (4)

Arpoiz arrantzatzen duen arrantzalea.

- es** arponero
fr harponneur
en harpooner

101

arrantzale (4)

1. Arrantza lanbidetzat duen pertsona.
2. Kirol-arrantza egiten duten pertsona.

- es** pescador
fr pêcheur
en fisherman

102

bakarkako ehizako gidari (4)

Bakarkako ehiza larrian, ehiza-eremua ezagutzen duen eta ehiztariari animaliak bilatzen laguntzen dion pertsona.

- es** guía de rececho

103

ehizazain (4)

Ehiza-eremuak zaintzeaz arduratzen den basozaina. Ehizaren eta arrantzaren gaineko araudia betearaztea da haren egitekoa.

- es** guarda de caza
fr garde-chasse
en game warden

104

ehiztari (4)

Ehiza-espezieak harrapatzen edo hiltzen dituena.

- es** cazador
fr chasseur
en hunter

ezkutuko ehiztari

Ik. isileko ehiztari

105

isileko ehiztari (4)

Sin. ezkutuko ehiztari (4)

- es** cazador furtivo
fr braconnier
en poacher

txakur-zaintzaile

Ik. txakurzain

106

txakurzain (4)

Sin. txakur-zaintzaile (3)

Ehizatzean ehiza-txakurrak kontrolatzen eta gidatzen dituen pertsona.

- es** podenquero; perrero
fr conducteur de chien
en keeper of the hounds; whipper-in

107

usozale (4)

- es** cazador de palomas
fr chasseur de pigeons
en pigeon hunter

108

uxatzaile (4)

Uxaldietan animaliak beren gordelekuetatik aterarazten dituen pertsona.

- es** ojeador; batidor
fr batteur; traqueur; rabatteur
en beater



5. METODOAK

abata

Ik. trapa

109**abata bidezko ehiza (4)**

Sin. apeu bidezko ehiza (4)

Ehiztaria ezkutuan gorderik dagoen artean, abata erabiliz hegaztiak erakartzean datzan ehiza-metodoa.

es caza con reclamo**fr** chasse à l'appel**en** call-hunting; hunting with decoys**110****aintzira-arrantza (4)**

Aintziretan egiten den kirol-arrantza.

es pesca lacustre**fr** pêche lacustre**en** lake fishing**aisialdiko arrantza**

Ik. kirol-arrantza

111**akuikultura (4)**

Landare eta animalia urtarrak hazteko tekniken multzoa.

es acuicultura**fr** aquaculture; aquiculture**en** aquaculture; aquiculture**altura handiko arrantza**

Ik. arrantza handi

alturako arrantza

Ik. itsas zabaleko arrantza

apeu bidezko ehiza

Ik. abata bidezko ehiza

112**argazki-ehiza (4)**

Lursail bat arakatzea, bertan bizi diren animalia basatiei argazkiak ateratzeko.

es caza fotográfica**fr** chasse photographique**en** photo hunting**argi bidezko arrantza**

Ik. argi-arrantza

argi bidezko ehiza

Ik. argi-ehiza

113**argi-arrantza (4)**

Sin. argi bidezko arrantza (4)

Arrainak erakartzeko argi artifiziala erabiltzen duen arrantza-metodoa.

es pesca a la mamparra; pesca con luz**fr** pêche à la lumière**en** light-fishing**114****argi-ehiza (4)**

Sin. argi bidezko ehiza (4)

Isilpeko ehizan, lurrazaleko animaliak aurkitzeko edo itsutzeko intentsitate handiko argi artifiziala erabiltzen duen ehiza-metodoa.

es caza al candil**fr** chasse au phare**en** jacklighting**115****arku bidezko ehiza (4)**

Animaliak arku eta geziak erabiliz harrapatzean datzan ehiza-metodoa.

es caza con arco**fr** chasse à l'arc**en** bow hunting**116****arma-lerro (4)**

Sin. tirogile-lerro (4); tiro-lerro (4)

Uxaldian, erakarrirako animaliei tiro egiteko zain dagoen ehiztari-multzoa.

es línea de armas; línea de tiradores; línea de tiro**fr** ligne des chasseurs postés; ligne de tir**en** firing line; shooting line**117****arrantza handi (4)**

Sin. altura handiko arrantza (4)

Itsas zabaleko arrantzategietan, hainbat hilabetetan jarraian egiten den arrantza. Arrainak harrapatzeko, eraldatzeko eta biltegitzeko gai diren itsasontzi handiekin egiten da.

es pesca de gran altura**fr** grande pêche**en** high-sea fishery**118****arrantza industrial (4)**

Inbertsio ekonomiko handiko arrantza intentsiboa, ahalik eta harrapaketa kopururik handiena lortzeko teknologia aurreratua erabiltzen duena.

es pesca industrial**fr** pêche minotière**en** industrial fishing**119****arraste-arrantza (4)**

Sareak herrestan eramanez egiten den arrantza. Ez da arrantza selektiboa, aparailuak duen sare-begi edo mailaren tamaina baita hautaketa egiteko irizpide bakarra.

es pesca de arrastre; arrastre**fr** pêche au chalut**en** trawling**120****arraste-arrantza pelagiko (4)**

Sakonera ertaineko edo azaleko uretan sareak herrestan eramanez egiten den arrantza. Itsasontzi bat edo gehiago erabiltzen da sarea herrestan eramateko, eta herrestatze-abiaduraren arabera sarea da sarearen sakonera.

es pesca de arrastre pelágico; arrastre pelágico**fr** chalutage pélagique**en** pelagic trawling**arrasto-ehiza**

Ik. aztarna-ehiza

121**arrasto-txakurrekin ehizatze (4)**

Oinez edo zaldi-gainean, arrasto-txakurrez lagunduta, ehiza larria nahiz xehea guztiz nekatu arte jarraitzean datzan ehiza-metodoa.

es caza con perro de rastro**fr** chasse à courre; vénerie**en** hunting with hounds**122****artisau-arrantza (4)**

Arrantza-metodo tradizionalak erabiltzen dituen arrantza-mota; bereziki, 12 metro baino gutxiagoko luzerako itsasontziekin egiten dena. Arrantzaldiak ez dira 24 ordutik gorakoak izaten.

es pesca artesanal**fr** pêche artisanale**en** artisanal fishing**askatu**

Ik. bota

123

azterna-ehiza (4)

Sin. arrasto-ehiza (4)

Animaliek utzitako aztarnak jarraituz ehizatzea, gehienetan arrasto-txakurrak erabiliz.

es caza al rastro
fr chasse fine à la trace
en tracking

bakarkako ehiza larri

Ik. bakarkako zelata-ehiza

bakarkako ehiza xehe

Ik. bakarkako jauzi-ehiza

124

bakarkako jauzi-ehiza (4)

Sin. bakarkako ehiza xehe (4)

Bakarka ehizatze metodoa, bereziki ehiza xehean erabilia. Eskopeta eskuetan hartu, eta haizearen aurkako noranzkoan lursail bat arakutzen da, bertan dauden animaliak atzemateko.

es caza al salto; caza galana
fr chasse devant soi; chasse au saut

125

bakarkako zelata-ehiza (4)

Sin. bakarkako ehiza larri (4)

Ehiza handian, bakarka eta txakurrik gabe ehizatze metodoa; tiro egiteko nahikoa distantziara egon arte hurbiltzen zaio ehiztaria animaliarri.

es rececho; caza a rececho; caza al rececho
fr chasse à l'approche; rececho
en stalking

baxurako arrantza

Ik. itsasbazerreko arrantza

126

beita biziko arrantza (4)

Bizirik dauden arrain txikiak beita gisa erabiltzen dituen kanabera-arrantza.

es pesca al cebo vivo
fr pêche à l'appât vivant
en live-bait fishing

127

beitatu (4)

Ehiza-espezieak erakartzeko, haiei jakia edo jaki-itxurakoa eman.

es cebar
fr amorcer; appâter
en bait

128

bikoteko arraste-arrantza (4)

Sare bera bi itsasontziren artean herrestan eramanez egiten den arraste-arrantza.

es pesca de arrastre en pareja; arrastre en pareja
fr pêche au chalut-boeuf
en pair trawling

129

biskaz harrapatze (4)

Txoriak harrapatze gai likatsu bat tranpa gisa erabiltzen duen ehiza-metodoa.

es caza con liga
fr chasse à la glu
en hunting with glue

130

bota (4)

Sin. askatu (4)

Arrantza-tresna, bereziki sarea, uretan behar bezala jarri.

es calar
fr filer; mouiller
en shoot; set out

131

ehiza larri (4)

Oreinak, basurdeak, adarabalak, orkatzak edo beste ugaztun handiak harrapatzean edo hiltzean datzan ehiza.

es caza mayor
fr chasse au gros gibier
en big game hunting

132

ehiza prestatu (4)

Abeltzaintzako animaliak naturan askatu bezain laster esestean datzan jarduera zinegetikoa.

es caza sembrada
en hunting of feral animals; hunting of released game

133

ehiza xehe (4)

Hegaztiak, azeria eta azeria baino ugaztun txikiagoak harrapatzean edo hiltzean datzan ehiza.

es caza menor
fr chasse au petit gibier
en small game hunting

134

ehiza-postu (4)

Sin. zelatexola (4)

Zelata-ehizan ehiztariak erabiltzen duten babeslekua, animaliak uxatu gabe haien zain egoteko.

es puesto de caza; acecho; puesto de espera
fr poste d'affût; affût
en blind

135

erakustxakurrarekin**ehizatze (4)**

Ehizakia aurkitzeko erakustxakurrak erabiltzean datzan ehiza-metodoa. Erakustxakurrak ehizakiaren aurrean geldirik geratzen dira, ehiztariak tiro egin arte.

es caza con perro de muestra
fr chasse au chien d'arrêt
en hunting with pointer

136

euli-arrantza (4)

Euli-itxurako beita artifiziala ur-azalaren gainean mugiaraziz egiten den kanabera-arrantza.

es pesca a mosca
fr pêche à la mouche
en flyfishing

falkoneria

Ik. hegazti harrapari bidezko ehiza

137

gibel-lerro (4)

Sin. gibel-postu (4)

Uxaldietan uxatzaileen atzean zain dauden ehiztarien lerroa edo postua.

es línea de retranca; puesto de retranca

gibel-postu

Ik. gibel-lerro

harrapari bidezko ehiza

Ik. hegazti harrapari bidezko ehiza



138

hegazti harrapari bidezko ehiza (4)

Sin. falkoneria (4); harrapari bidezko ehiza (4)

Ehizarako trebatutako hegazti harrapariak ehiza-baliabide gisa erabiltzen dituen ehizatze-metodoa.

es cetrería; caza de cetrería; halconería
fr fauconnerie; chasse au vol; volerie
en falconry

139

hil gabeko arrantza (4)

Animaliak harrapatu ondoren hil gabe askatzean datzan arrantza-jarduera.

es pesca sin muerte
fr pêche avec remise à l'eau des prises
en no kill fishing; catch and release

140

hil gabeko ehiza (4)

Animaliak harrapatu ondoren, hil gabe askatzean datzan ehiza-jarduera.

es caza sin muerte
en no kill hunting; catch-and-release hunting

141

hondoko arrantza (4)

Ur-hondoan edo ur-hondotik hurbil beita erabiliz egiten den arrantza.

es pesca a fondo
fr pêche de fond
en ground-fishing

142

hondoko arraste-arrantza (4)

Itsas hondoa ukitzen duten sare lastatuak erabiliz egiten den arrantza.

es pesca de arrastre de fondo; arrastre de fondo
fr chalutage de fond
en bottom trawling

143

hudoz lagundutako ehiza (4)

Untxiak ehizatze metodoa, untxiak beren gordelekuetatik irtenarazteko hudo batez baliatzean datzana.

es caza con hurón
fr chasse au furet
en hunting with ferrets

144

ibai-arrantza (4)

Ibaietan egiten den kirol-arrantza.

es pesca fluvial
fr pêche fluviale
en river fishing

145

inguraketa-arrantza (4)

Sin. ingurasareko arrantza (4) Herrestan eramaten den sare batekin arrainak inguratuz egiten den arrantza.

es pesca al cerco; pesca con red de cerco
fr pêche à la senne
en seining

ingurasareko arrantza

Ik. inguraketa-arrantza

146

itsas arrantza (4)

Itsasoan, itsasertzetik edo ontzi batetik, egindako arrantza.

es pesca marítima
fr pêche maritime
en sea fishing

147

itsas zabaleko arrantza (4)

Sin. alturako arrantza (4) Tona askoko ontziak erabiliz itsasertzetik 60 milia baino urrunago egiten den arrantza.

es pesca de altura
fr pêche hauturière
en deep-sea fishery; offshore fishing

148

itsasbazterreko arrantza (4)

Sin. baxurako arrantza (4) Tona gutxiko ontziak erabiliz itsasertzetik 60 milia baino hurbilago egiten den arrantza.

es pesca costera; pesca de bajura
fr pêche côtière
en inshore fishing; inshore fishery

149

itsaski-bilketa (4)

es marisqueo
fr pêche des fruits de mer
en shellfishing

150

itsasoko arrainzaintza (4)

Haztegietan hazitako espezieak itsas zabalean askatu ondoren harrapatzean datzan arrantza-metodoa.

es pastoreo marino
fr pacage marin
en sea ranching

jito-sareko arrantza

Ik. trebes-sareko arrantza

151

kanabera-arrantza (4)

Kanabera bat edo gehiago erabiltzen duen arrantza.

es pesca con caña
fr pêche à la ligne
en line fishing

152

kazako arrantza (4)

Sin. xaxiango arrantza (4) Arrainak erakartzeko beita herrestan eramatean datzan arrantza-metodoa. Sakontasun ertaineko uretan edo hondotik zentimetro gutxira erabiltzen da.

es pesca a la cacea; pesca al curricán
fr pêche à la caille
en troll lining

153

kirol-arrantza (4)

Sin. aisialdiko arrantza (4) Aisiako edo lehiatzeko helburuekin egiten den arrantza ez-profesionala. Kirol-arrantzak bi modalitate ditu: ur-azaleko arrantza eta urpeko arrantza.

es pesca deportiva; pesca recreativa
fr pêche sportive
en sport fishing

154

kirol-ehiza (4)

Aisiako edo lehiatzeko helburuekin ehiza-espezieak harrapatzea edo hiltzea.

es caza deportiva
fr chasse sportive
en sport hunting

155

kontrapasako ehiza (4)

Negua igaro duten lekutik habia egiten duten lekuetara doazenean, hegazti migratzaileak zelatexoletan zain dauden ehiztariek ehizatzea.

es caza en contrapasa
fr chasse des oiseaux migrants à leur retour de migration
en hunting of returning migratory birds

156

lakioz harrapatze (4)

Isilpeko ehizan, lurrazaleko animaliak harrapatzeko lakioak erabiltzen dituen ehiza-metodoa.

es caza con lazo
fr colletage
en hunting with snares



157

mendi-ehiza (4)

Ehiztari-talde handi batek eremu handi batean ehiza larria guztiz nekatu arte jarraitzean datzan ehiza-metodoa.

Oinez edo zaldi gainean eta arrastotxakur askoz lagunduta ehizatzen da.

es montería; caza en montería

fr grande vénerie

en montería

158

pase-lerro (4)

Hegazti migratzaileen pasabideetan ehiztarien zelatetxolek osatzen duten lerroa.

es línea de pase

fr ligne de passage

159

postu finkoko ehiza (4)

Ehiztaria zelatetxola batean animaliak gerturatu zain egotean datzan ehiza-metodoa. Ehiza larriko nahiz xeheko espezie ugariarekin erabiltzen da, baita uxaldi-ehizan ere.

es caza en puesto fijo

fr chasse à l'affût

en hunting from blinds

160

sare-ehiza (4)

es caza con red

fr chasse aux filets

en hunting with nets

tiro-lerro

Ik. arma-lerro

tirogile-lerro

Ik. arma-lerro

161

tranpaz harrapatze (4)

es trampeo

fr piégeage

en trapping

162

trapa (4)

Sin. abata (4)

Lurretik distantzia jakin batera eraikitako ehiza-postua. Batez ere, uso-ehizan erabiltzen da, eta pase-lerroetan egoten da.

es trepa; esperadero elevado

163

trebes-sareko arrantza (4)

Sin. jito-sareko arrantza (4)

Itsaslastarren mende, noraezean, utzitako arrantza-sareekin egiten den arrantza.

es pesca con red de deriva

fr pêche aux filets dérivants

en drift net fishing

164

tretza-arrantza (4)

Tretzak gauzez boteaz eta goizez jasoz egiten den arrantza.

es pesca al palangre; pesca al pincho

fr pêche à la palangre; pêche aux lignes de fond

en long lining; long-line fishing

165

ur-azaleko arrantza (4)

Ur-ertzetik edo ontzi batetik ur-azalean egiten den kirol-arrantza.

es pesca de superficie

fr pêche en surface

en surface fishing

166

urpeko arrantza (4)

Urpean igeri ibiliz egiten den kirol-arrantza: arrantzaleak urpeko maskara eta arnas hodia izan ohi ditu, arrainen atzetik igeri ibiltzen da, eta fusil batez jaurtitako arpoiak erabiliz haiek harrapatzen ditu. Arrainez gainera, olagarroak eta antzeko itsas espezieak ere harrapa daitezke arrantza-modalitate honetan.

es pesca subacuática; pesca submarina

fr chasse sous-marine

en underwater fishing

167

uxaldi (4)

Basoa edo bestelako lursail bat zarata eginez eta landareak astinduz zeharkatzea, bertan dauden animaliak uxatzeko eta ehiztariengana eramateko.

es batida; ojeo

fr battue; traque; rabat

en beating; drive; battue

168

uxatzaile-lerro (4)

Uxaldian, lerro bat osatuz, animaliak tirogile-lerroa bultzatzen dituzten ehiztarien multzoa.

es línea de ojeadores

fr ligne de traqueurs; ligne de rabatteurs

en driving line; line of beaters

xaxiango arrantza

Ik. kazako arrantza

169

zelata-ehiza (4)

Animalientzat ohikoak diren lekuetan edo haien pasabideetan zelatan egonez ehizatzea.

es caza al acecho; caza a la espera; aguardo

fr chasse à l'espère

en hunting game from a hide

zelatetxola

Ik. ehiza-postu

6. EKIPAMENDUA

170

abata (4)

Sin. apeu (4)

1. Hegaztiak erakartzeko hegazti-irudia edo -soinua. 2. Sare-ehizan, hegaztiak ikartzeko eta lurretik hurbilago hegan egin dezaten erabiltzen den gabirai-irudia.

es señuelo**fr** appelant**en** decoy**abata bizi**

Ik. zinbel

171

abata elektriko (4)

Sin. apeu elektriko (4)

es reclamo eléctrico**fr** appeau électrique**en** electric decoy

172

abata itsu (4)**es** reclamo cegado**fr** appeau aveuglé; appelant aveuglé**en** blind bird used as decoy

173

abata mutilatu (4)**es** reclamo mutilado**fr** appeau mutilé; appelant mutilé**en** mutilated bird used as decoy

174

abata naturalizatu (4)

Ehizakiak erakartzeko ehiztariak erabiltzen duen hildako animalia, diseatu ondoren bizi-itxura eman zaiona.

es reclamo naturalizado**fr** appeau naturalisé**en** naturalised decoy

175

adar (4)

Piztia handien ehizaldietan erabiltzen den tronpa.

es cuerno; cuerno de caza**fr** corne; cor de chasse; trompe**en** hunting horn

176

aire konprimatuko eskopeta (4)

Jaurtigaia jaurtitzeko kulatan konprimatutako airea erabiltzen duen eskopeta.

es escopeta de aire comprimido**fr** carabine à air comprimé**en** air gun

177

almadraba (4)

Sin. atun-sare (4)

Tranpadun sare finkoa, kostaldetik gertu kokatzen dena atunak eta antzeko arrainak harrapatzeko.

es almadraba**fr** madrague**en** mandrague; tunny net

178

amu (4)

Beitaz hornituta pitari lotzen zaion kako-itxurako metalezko pieza txikia.

es anzuelo**fr** hameçon**en** fish hook

179

amu-aparailu (4)**es** aparejo de anzuelo**fr** ligne à hameçon**en** hook and line; hook fishing gear

180

amu-ateratzeko (4)

Arrantzatutako arrainari amua kentzeko erabiltzen den tresna.

es sacaanzuelos**fr** dégorgeoir**en** disgorger club; disgorger

181

amu-hari (4)

Sin. pita (4)

Amuari lotzen zaion hari sintetikoa.

es sedal**fr** ligne**en** fishing line**aparailu**

Ik. arrantza-aparailu

apeu

Ik. abata

apeu elektriko

Ik. abata elektriko

182

argi kimiko (4)**es** alumbrado químico**fr** éclairage chimique**en** chemical lighting

183

arima (4)

Su-arma baten kanoiaren barnealdea.

es ánima**fr** âme**en** bore

184

arima ildaskatuko arma (4)

Sin. arima marratuko arma (4); su-arma marratu (4)

Ariman jaurtigaia birarazteko espiral-formako sakonunea duen arma.

Tiro egitean jaurtigaia iren ibilbidea zuzenagoa izan dadin ezartzen zaio espiral hori.

es arma de ánima rayada; arma de ánima estriada; arma de fuego rayada**fr** arme rayée; arme à feu à canon rayé**en** rifle

185

arima lauuko arma (4)

Ildaskarik gabeko arima duen arma.

es arma de ánima lisa**fr** arme à canon lisse**en** smooth-bore weapon**arima marratuko arma**

Ik. arima ildaskatuko arma

186

arma automatiko (4)

Tiro egin ondoren automatikoki kargatzen den su-arma.

es arma automática**fr** arme automatique**en** automatic firearm

187

arma erdiautomatiko (4)

Tiro egiterakoan perkusio-indarra erabiliz automatikoki jaurtigailu bakar bat kargatzen duen su-arma.

es arma semiautomática**fr** arme semi-automatique**en** semiautomatic firearm

188

arma zuri (4)

Esku-arma sorbatzduna.

- es** arma blanca
fr arme blanche
en cold steel

189

arpoi (4)

Arrain handiak eta zetazeoak harrapatzeko erabiltzen den tresna, kirten luze batez eta burdinazko mutur batez osatua.

- es** arpón
fr harpon
en harpoon

190

arrain igerilari (4)

Arrain-itxurako beita artifiziala, amuduna, eta uretan herrestan eramaten denean arrainen mugimenduaren antzeko uhinak eragiten dituena.

- es** pez nadador
fr poisson nageur
en minnow crankbait

arrain-detektagailu

Ik. heltze-detektagailu

arrain-sare

Ik. sare

191

arrantza-aparailu (4)Sin. arrantza-tresna (4); aparailu (4)
Arrantzatzeko behar den tresneria.

- es** aparejo de pesca; arte de pesca
fr attirail de pêche
en fishing outfit

192

arrantza-ontzi (4)

Arrainak harrapatzeko, prestatzeko edota garraiatzeko erabiltzen den ontzia.

- es** buque de pesca
fr bateau de pêche
en fishing vessel

193

arrantza-saski (4)

Harrapatu dituzten arrainak eramateko, arrantzaleek erabiltzen duten saskia, gehienetan zumezkoa.

- es** cesta de pesca
fr panier de pêche
en fishing basket

arrantza-tresna

Ik. arrantza-aparailu

194

arrantzako kanabera (4)

Amu-hariari eusteko erabiltzen den haga luze batez egindako arrantza-tresna.

- es** caña de pescar
fr canne à pêche
en fishing rod

195

arraste-inguraketako sare (4)

Sin. senu (4)

Ontzitik askatu eta ontzitik zein kostatik bil daitekeen ingurasare-mota, normalean zakuduna, bi muturretan dituen soketatik tiratuz jasotzen dena.

- es** red de jábega; jábega
fr senne
en seine net

196

arrasto-txakur (4)

Ehizakiak uzten dituen aztarnei jarraitzeko trebatutako ehiza-txakurra.

- es** perro de rastro; perro rastrero
fr limier
en tracker

197

arratoi-isats (4)

Kanaberatik amurainoko tartean diametro txikiagoa duen amu-haria.

- es** cola de rata; látigo
fr queue de rat
en pointed rope end

atun-sare

Ik. almadraba

atxamarta

Ik. karpin

198

aulki-tripode (4)

- es** trípode-asiento
fr trépied
en tripod

199

azpantar (4)

Orkatilatik belaunera doan zangozattia estaltzeko erabiltzen den jantzia, gehienetan larruzkoa edo feltrozkoa.

- es** polaina
fr guêtre
en gaiter

200

bahe (4)

- es** criba
fr crible
en sieve

201

bala (4)

Ehizarako jaurtigaia, gehienetan berunezkoa.

- es** bala
fr balle
en bullet

202

bala-kartutxo (4)

Ehiza-kartutxoa, osagai hauek dituena: kartutxo-zorroa, bolbora, bala eta kapsula piztailea.

- es** cartucho de bala
fr cartouche à balle
en rifle cartridge

203

balatxo (4)

Aire konprimatuzko armetan erabiltzen den bala txikia, gehienetan 4,5 milimetroko kalibrekoa.

- es** balín
fr plomb
en small bullet

204

balezta (4)

Ehizan geziak indar handiz jaurtitzeko erabiltzen den arma, zurezko edo beste material batez egindako pieza luze baten gainean muntatutako arku bat duena.

- es** ballesta
fr arbalète de chasse
en hunting crossbow

205

balezta bidezko ehiza (4)

Animaliak balezta eta geziak erabiliz harrapatzean datzan ehiza-metodoa.

- es** caza con ballesta
fr chasse à l'arbalète
en crossbow hunting

206

banarreta (4)

Sin. benaka (4); esku-sare (4)

Sare txikia, alboetan dituen bi makilei eskuz eustekoa.

- es** remanga; redisca

207

beita (4)

Sin. karnata (4)

Arrantzatzean edo ehizatzean animaliak erakartzeko erabiltzen den jakia edo jaki-itxurako gauza.

es cebo; carnada

fr appât

en bait

208

beita artifizial (4)

Arrainak harrapatzeko erabiltzen den janariaren itxura imitatzen duen beita, plastikoz, metalez edo beste lehengai artifizialez egindakoa. Beita artifizialak dira, adibidez, arrain igerilariak eta euli artifizialak.

es cebo artificial

fr appât artificiel; leurre

en artificial lure; artificial bait

benaka

Ik. banarreta

209

berun (4)

Amu-hariari lotzen zaion tresna, beita urpean edukitzeko erabiltzen dena.

es plomo

fr plomb

en sinker

210

biska (4)

Sin. lika (4)

Mihuratik ateratzen den gai likatsu eta toxikoa, txoriak harrapatzeko erabiltzen dena.

es liga

fr glu

en bird-lime

211

bolanta (4)

es volanta

fr filet maillant de fond

en bottom-set gillnet

212

butroi (4)

Sin. pertola (4)

Ur-lasterretan arrantzatzeko erabiltzen den otarre handia eta konikoa.

es butrón; botrino

fr verveux

213

egoneko amu-hari (4)

Arrantzaleak ur-bazterrari, landareei edo uretan dagoen objektu bati lotuta uzten duen arrantza-aparailua.

es sedal durmiente

fr ligne dormante

214

ehiza-arku (4)

Animaliak geziekin ehizatzeo diseinatutako arku.

es arco de caza

fr arc de chasse

en hunting bow

215

ehiza-eramateko (iz.) (4)

Sin. ehizatako (iz.) (4)

Ehizatutako animalia txikiak batera garraiatzeko tresna, hainbat kako, uztai edo korapilo lerrakor dituen.

es colgador; portacazas

fr porte-gibier

en game strap; game carrier; game tote

216

ehiza-txakur (4)

Ehizarako trebatutako txakurra.

es perro de caza

fr chien de chasse

en hunting dog

217

ehiza-txakur saldo (4)

Ehizakiak beren gordeleketatik aterarazteko erabiltzen den txakurren multzoa.

es jauría; rehala

fr meute

en pack of hounds

218

ehiza-zorro (4)

Ehizatutako animaliak garraiatzeko zorroa, ehiztariak sorbaldatik zintzilik eramaten dutena.

es morral

fr gibecièrre

en game-bag

ehizatako

Ik. ehiza-eramateko

219

elektrokutagailu (4)

es aparato electrocutante

fr électrocuteur

en electrocuting device

220

erakustxakur (4)

Ehiztariari ehizakia non dagoen adierazteko trebatutako ehiza-txakurra.

es perro de muestra

fr chien d'arrêt

en pointer; pointing dog

221

errifle (4)

Ehizatzeo erabiltzen den arima marratuko fusila.

es rifle

fr rifle

en rifle

222

ertzeko perkusioko su-arma (4)

Kolpekariak kartutxoaren oinarriaren ertzean jotzeko diseinatuta dagoen su-arma. Perkusio-orratzak kartutxo-zorroaren oinarriaren ertza jotzen duenean, detonagaia lehertu egiten da, eta bolbora pizten.

es arma de fuego de percusión anular

fr arme à feu à percussion annulaire

en firearm with rimfire percussion

223

eskopeta (4)

Ehizatzeo erabiltzen den fusil arina.

es escopeta

fr fusil de chasse

en shotgun

224

eskopeta-zorro (4)

es funda de escopeta

fr fourreau carabine; étuis à fusil

en rifle case

esku-sare

Ik. banarreta

225

eskuko zunda (4)

Sin. zunda-berun (4)

es sonda de mano

fr plomb à main; sonde à main

en hand lead

226

esparbel (4)

Sin. txinga (4)

Aterki-formako arrantza-sarea, ibaietan eta sakonera gutxiko uretan eskuz botatzen dena.

es esparavel

fr épervier

en cast net



227

euli (4)

Euli-arrantzan erabiltzen den beita artifiziala, ile, luma, oihal-zati edo antzeko beste lehengai batekin egindakoa.

es mosca
fr mouche
en fly

228

euli-arrantzako kanabera (4)

Euli-arrantzarako diseinatutako kanabera malgua, gehienetan banbuzkoa.

es caña de mosca
fr canne à mouche
en fly rod

229

galtza-bota (4)

Sin. praka-bota (4)

es vadeadores
fr waders; cuissardes
en waders

230

gerra-arma (4)

Erabilera militarretarako diseinatutako arma.

es arma de guerra
fr arme de guerre
en weapon of war

231

hegazti-dei (4)

Hegaztiak eta ugaztun txikiak erakartzeko erabiltzen den soinu-tresna.

es reclamo
fr appeau
en birdcall

232

heltze-detektagailu (4)

Sin. arrain-detektagailu (4)

es indicador de picada
fr détecteur de touche
en fish finder

233

heltze-txakur (4)

es perro de presa; perro de agarre

fr chien de prise
en catch dog

234

hiru-sare (4)

Sin. tresmail (4)

es trasmallo
fr tremail; trémail
en trammel net

235

hudo (4)

Untxiak ehizatzeke erabiltzen den mustelidoen familiako ugaztun haragijalea.

es hurón
fr furet
en ferret

236

irudi-bihurgailu (4)

Bisoreetan txertatzen den tresna, gauean objektuak eta izakiak ikusgai bihurtzeko erabiltzen dena. Debekatuta dago ehiza egiteko erabiltzea.

es convertidor de imagen; conversor de imagen
fr convertisseur d'image
en image converter

237

irudi-handigailu (4)

es amplificador de imagen
fr amplificateur d'image
en image amplifier

238

isilgailu (4)

Su-armen tiro-hotsaren intentsitatea apaltzeko gailua.

es silenciador
fr silencieux
en silencer

239

jaurtigai (4)

Ehiza-arma batek jaurti dezakeen objektua.

es proyectil
fr projectile
en projectile

240

kamuflejeko estalki (4)

es pantalla de camuflaje
fr filet de camouflage
en camouflage net

241

kamuflejeko jaka (4)

es prenda de camuflaje
fr vêtement de camouflage
en camouflage garment

242

kanabera teleskopiko (4)

Diametro desberdineko atal bat baino gehiagok osatutako kanabera, atal bakoitza bestearen barruan sartuz motzago egin daitekeena.

es caña telescópica
fr canne à pêche télescopique
en telescopic fishing rod

243

kanabera-zorro (4)

es funda de caña
fr fourreau à cannes
en rod bag

kanoi-estutzaile

Ik. txoke

244

karabina (4)

Kanoi motzeko fusil arina.

es carabina
fr carabine de petit calibre
en smallbore rifle; carbine

245

kargagailu (4)

Su-arma automatikoen kulatan egoten den gailua, jaurtigailuak biltzen dituen ontzi metaliko batez eta bulkada-malguki batez osatua.

es cargador
fr chargeur
en magazine

karnata

Ik. beita

246

karpin (4)

Sin. atxamarta (4); txarpa (4)

Amu bat baino gehiagok osatutako arrantza-aparailua.

es anzuelo múltiple; grampín; robador
fr hameçon multiple
en composite hook; gang-hook

247

kartutxo (4)

Ehizan aritzeko su-arma baten munizioa, jaurtigaiaz eta hura bultzatzeko bolboraz osatua.

es cartucho
fr cartouche
en cartridge

248

kartutxo-uhale (4)

